2026ko

Aparteko erregularizazioa

Zer da?

- Atzerritarren Araudiaren erreforma bat da, eta onartzen denean, 2025/12/31 baino lehen Espainiako lurraldean zeuden atzerritarrei bizileku-baimen bat eskuratzeko baimena emango die, salbuespenezko inguruabar bakarrengatik, ETA
- ØAukera emango die asilo-eskaera 2025/12/31 baino lehen aurkeztu duten eta Espainiako lurraldean dauden pertsonei Atzerritarren Araudian aurreikusitako sustraitzeagatik bizileku-baimenak eskuratzeko.

Norentzat da?

Baldintza hauek betetzen dituzten atzerritarrentzat baldintza orokor hauek GUZTIAK:

- Espainiako lurraldean egotea 2025/12/31 baino lehen.
- Eskaera egiten den unean, gutxienez 5 hilabetez Espainiako lurraldean egon izana.
- Espainian zigor-aurrekaririk ez izatea, ezta aurreko 5 urteetan bizi izan den herrialdeetan ere.
- Ordena publikoarentzat, segurtasunarentzat edo osasun publikoarentzat mehatxua ez izatea, eta Espainiako lurraldean sartzea debekatua ez izatea.
- Izapidetze-tasa ordaintzea.

NAVARRA ⁝ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Norentzat da?

Eta honako baldintza berezi hauetako bat, gutxienez:

- Espainian lan egin izana edo lan-kontratu bat aurkeztea.
- Espainian bere familia-unitatearekin batera egotea, honako kide hauez osatutakoa bada:
  - SEME-ALABAK:
    - eskolatuak edo ikasketa akademikoak egiten.
    - ezgaitasuna edo osasun-arrazoiengatik laguntza behar duten adinez nagusi diren seme-alabak.
  - Lehen mailako AURREKOAK.
- Zaurgarritasun-egoeran egotea (hala dagoela jotzen da egoera irregularrean badago, eta gizarte-erakunde batek ere egiazta dezake).

Eskabideak aurkezteko aurreikusitako datak

Baimen hori 2026ko ekainaren 30era arte eskatu ahal izango da. Oraindik ez da ireki eskabideak aurkezteko epea.

Pausoz pauso

1 PRESTATU DOKUMENTAZIOA

- Pasaportea, bidaia-txartela edo inskripzio-zedula.
- Egonaldia egiaztatzen duen edozein dokumentu publiko, pribatu edo bi dokumentuen arteko konbinazioa.
- Aurrekari penalen ziurtagiria.
- Tasaren ordainagiria.
- Lana, familia-unitatearekin egotea edo zaurgarritasuna egiaztatzen duten agiriak, kasuaren arabera.

2 ESKAERA AURKEZTEA

- Dagokion inprimakiaren bidez.
- Zuzenbidean baliozkoa den edozein erregistro-bide erabiliz.
- Baliteke aurkezteko beste bulego publiko batzuk gaitzea.
- Lehentasunez izapidetuko da.

3 ALDEKO BEHIN-BEHINEKO BAIMENA

- Eskaera izapidetzea onartzen denetik ebazten den arte.
- Bizitzeko eta lan egiteko behin-behineko baimena ematen da.
- Besteren kontura eta norbere kontura lan egin daiteke.
- Estatuko lurralde osorako eta edozein sektoretarako balio du.

Pausoz pauso

4 EBAZPENA

- Aldekoa bada, urtebeterako bizileku- eta lan-baimena ematen da. Behin-behineko baimena hasten den eguna izango da hasiera-data.
- Baimena luzatu ahal izango da, egoera berean jarraituz gero eta Atzerritarren Araudiaren arabera baimena aldatzeko eskatu ezin bada.

Garrantzitsua da jakitea...

Atzerritarraren nortasun-txartela Ebazpena eman eta hurrengo hilabetean eskatu behar dela, eta baimenaren balio-eperako emango dela.

Zer gertatzen da nire familiarekin?

Adingabeko seme-alabek eta desgaitasuna duten edo atzerritarraren laguntza behar duten adin nagusikoek aldi berean egin dezakete bizileku-eskaera, eta 5 urteko baimena emango zaie.

Atzerritarraren familia-unitatea osatzen duten aurrekoek salbuespenezko egoera bakarragatik eskatu ahal izango dute baimena, urtebeterako. Aldi berean ebatziko dira.

Informazio gehiago:

INFORMAZIO-PUNTU OFIZIALAK:

- ✓ Nafarroako Gobernuaren Atzerritartasunaren arloan arreta eta aholkularitza emateko zerbitzua.
  - Telefonoa: 848 42 09 11
- ✓ Nafarroako Gobernuaren Migrazioen arloko orientazioko eta oinarrizko informazioko zerbitzua.
  - Iruñeko telefonoa: 848 42 09 72
  - Tuterako telefonoa: 848 43 36 61
- ✓ Nafarroako Gobernua:
  - www.navarra.es/es/migraciones
- ✓ Gizarteratze, Gizarte Segurantza eta Migrazioen Ministerioa:
  - www.inclusion.gob.es

Gogorarazten dizuegu 2026/02/05eko behin-behineko informazioa dela, neurria arautzen duen Errege Dekretua onartzeko zain. Nafarroako Gobernuaren eta Gizarteratze eta Migrazioen Ministerioaren iturri ofizialetatik informatzea gomendatzen dugu.

NAVARRA ⁝ NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua